

ANBROSIA

AGIRREGOMEZKORTA

IDAZTI HONENTZEKO
INFORMAZIÑUA BATZEN
HASI AURRETIK,
PERTSONAJE
ESANGURATSU BATEN
AURRIAN NEUALA
KONTURATUTA NEUAN,
ALPERRIK EZ DA ETA
GATXIZEN MATRIARKAL
BATEN ITURRI
(ANBROSIA NEKUAK) ETA
ERMUARREN AHOTAN
GERATU DIRAN
ANEKDOTA ETA ESAKERA
ASKOREN JABE.

“ANBROSIAK ESATE
EBAN LEZ...”



“Onerako edo txarrerako, neutaz eiñ deixela berba”



henengo Elixostian egon zan eta ger-raren urtian Kaltxango ondokua za-baldu eben, gero errotondia egin zan leku berian eta gaur egunekotik hurr-an. Barrak, mokotsak, pistolak, mo-ñak, laukuak...danetik asko. Oin, ba-teron bat estu baebilen ez ekan errepa-rorik ogixa duan emoteko.

Gazte jendiaz egotia gustatzen jakon. Haretxen ipoiñak entzun, gustokuen go-ra-beheren barri euki...Umien konturen batek urtetzen eban bakoitzian: “*umie-kin? ezta zerura bez!*” esateko ohitxu-ria ekan. Sasoian sartuta euala, barriz, esaten ebala goguan dake etxeakuak: “*umiei geldik egoteko eta niri ibiltzeko, bardiña*”.

Gustoko ekan habanerak kantatzia, lagun arteko karta jokaldixak eta firin-faran pasiuak ibiltzia. Ondo-ondo orraztu, erroparik edertxuenak jantzi eta berak esaten eban modura “*Ermuan pasakallia eitxera*”. Hain zan kuriosia ze panaderixan ebaltzen eban batia beti idulustara jantzen ebala, arratsaldian erara ipiñi eta garbi agertzeko.

Loibiakin Logroñora juan eta Doña Maria Teresa legez emon zan ezagutze-ra. Bizikletak alokatzen zitxuela eta mutikuak diru eske juan eta ezetza entzuteeran bengantzian esan ei zotsan: “*ba esango dot deitzen zarela Anbrosia, Anbrosia, Anbrosia*”. Ermura etorri eta kontau gero berak.

Bere ilusiñuetako bat etxe partikula-rrian bizi izatia zan, negozio eta ardura bako etxian. Eta halantzek hil be ein zan, Berrizen, alabiaren etxian 1964ko Santixau bezperan. Bixamonian Er-muan plazan Bandiak jotzen ziharduela, jendia bere enterrura zoian. Uhm, musi-kiakin. Pozik askua ikusiko ebana be-rak! Ahor ba, oiñguan geu be zeure gai-ñian berbetan eta onerako, Anbrosia!

Estibalitz González

Jenio biziko andra hau 1889ko abenduaren 12xan jaixotakua zan. Feliciano eta Jose Agustinen seme-alabetatik bera izan zan zaratatsuena eta rebeldiena, dan-bolin hutsa. Isilik eta beranak esan ba-rik, kostata egongo zan. Andres Urrio-labeitiakin 1912ko aprilaren 27xan ez-kondu zan eta hiru seme-alaba euki zi-txuen: Milagros, Victoria eta Enrique. Bihargiña eta apremixaua gitxi lako-xia, etxeko okindegixiaren kargu dan-dana bere gain euan. Tratulari ona zan, balixo haundikua salerosketa kontue-tan. Saltzen gero, iñork baiño hobeto ekixan. Bere esaldi antolojikuetakoa bat? “*Gurian ogixa, ene, pastela lako-xia! pena eta dana saltzia*” eta saldu-ko leuke gero...burkadia! Negoziora-ko bista ona ekan, bera arduratzen zan gari eta zahixa erostiaz. Andres gizona totaleko diferentia zan: tamaiñuan ber-ba eta konforme beti. Panaderixia le-

MALLA



ileapaindegia

Probaleku 8, behea

© 943 17 18 50



KAFETEGIA XAGUA

Zubiaurre Kalea, 23 behea